

|                                 |         |
|---------------------------------|---------|
| Izen-abizenak:                  |         |
| EBALUAKETA                      | Taldea: |
| GAIA: Zenbaki osoak – Buruketak | Data:   |


**OHARRA: Prozedura argi eta garbi azaldu behar da.**

- 1) Zenbat metro daude **8.500 metroko altueran** hegan ari den hegazkin baten **eta itsas mailatik behera 350 metrora** dagoen itsaspeko baten artean ?



a) \_\_\_\_\_ metro daude bien artean.

- 2) Biharko, 8º C-ko tenperatura maximoak eta zeroz azpitik 3º C-ko minimoak eman dituzte. Zenbat graduko tenperatura diferentzia dago maximoaren eta minimoaren artean?



a) \_\_\_\_\_ º -ko aldakuntza egongo da.

- 3) Tales Miletokoa greziar matematikaria **K.a. 624.** Urtean jaio zen, eta **78 urterekin hil zen.** Zer urtetan hil zen ?

a) \_\_\_\_\_ urtean hil zen.



|                                 |         |
|---------------------------------|---------|
| Izen-abizenak:                  |         |
| EBALUAKETA                      | Taldea: |
| GAIA: Zenbaki osoak – Buruketak | Data:   |

4) Urpekari bat plataforma nagusian dago, itsas mailaren **gaintik 4 m**-ra, eta desplazamendu hauek egin ditu:

- **15 metro jaitsi** da, materiala uztera.
- **Beste 3 metro jaitsi** da, soldadura bat egiteko.
- **8 metro igo** da, hodi bat konpontzeko.
- Azkenik **plataformara igo da** berriro.

Zenbat metro egin ditu gorantz azken mugimendu horretan ?

a) \_\_\_\_\_ metro egin ditu gorantz azken mugimenduan.

5) Zizeron eta Seneka biak izan ziren Erromako hiritarrak, gizon jantziak, hizlari onak eta politikan sartuak; eta horrek heriotza ekarri zien biei. Dena dela, aro desberdinetan bizi izan ziren:

- Zizeron K.a. 106. urtean jaio zen, eta 63 urte bizi izan zen.
- Seneka Zizeron hil eta 47 urtera jaio zen, eta 61 urte bizi izan zen.

Zer urtetan hil zen Seneka ?

a) Seneka \_\_\_\_\_ urtean hil zen.